



# Ikastolako Lehendakaria, berri emaile



Kontseilu Errektoreak egindako azken bileraren berri doakizue. Os informo de la última reunión del Consejo Rector.

## KONTSEILU ERREKTOREA 2023-10-26

### DIRU KONTUEN ITXIERA. (2023/08/31koa)

2022-2023 ikasturteko diru kontuen itxiera aurkeztu du Laurane Zubiak, administrari nagusiak. Abuztuaren 31n itxitako ekitaldiaren Urteko Kontuak formulatzea onartu da Batzar Nagusian aurkeztu eta onar daitezten.

Abenduko bilerara ekarriko da 2022/23ko auditoria txostena onarpenerako.

### AURREKONTUA 2023-2024 IKASTURTEAN

2023/24 ikasturterako aurrekontuak aurkeztu ditu Laurane Zubiak, administrari nagusiak. Galdu-irabazien aurrekontua eta aparteko inbertsioen eta emaitzaren aurreikuspenak azaldu ditu. Guneetarako esleitzen den kopurua jaso gabe dago dagokien partidatan. Banaketaren arabera, azaroko bilerara ekarriko da aurrekontu definitiboa.

### ERDUREN ESKAINTZAREN INGURUKO HAUSNARKETA.

Hausnarketa prozesuak orain arte emandakoaren aurkezpena egin dute Jon Otxandategi Arrasateko ERDUko zuzendariak eta Nagore Iraola IRUTENeko zuzendariak. Arlo pedagogikotik egindako azterketaren deskargua Amaia Arrieta Kontseilukideak egin du. Lanketarekin jarraituko dugu eta proposamenak ekarriko dira Kontseilu Errektorera, datorren ikasturtera begira eskaintzan aldaketak proposatzen badira azaro edo abenduan onartzeko.

### PARTAIDETZA SOZIALEKO ORGANO eta BILTZAR PRESTATZAILEKO GAIEN ZEHAZTAPENA.

Partaidetza Sozialeko bileretan eta Biltzar Prestatzailean lantzeko gai esanguratsuen propsamenen jasoketa egiteko eskatu zaie partaideei. Hurrengo bileran ekarriko dituzte gaiak horrela baloratzuz gero.

### ELKARTEAREN ERATZEA. URRATSAK.

Aho batez erabaki da Lanbide heziketako elkartearen sortzea eta ikastola sustatzaile izatea.

Artikulaziorako urratsak ematen jarraituko dugu, tartean, funtzionamendurako dokumentua sortuko da eta hitzarmena sinatuko da.

## CONSEJO RECTOR 2023-10-26

### CIERRE DE CUENTAS. (a 31/08/2023)

Laurane Zubiak, administradora general, ha presentado el cierre de las cuentas del curso 2022-2023. Se aprueba la formulación de las Cuentas Anuales del ejercicio cerrado a 31 de agosto para su presentación y aprobación en la Asamblea General.

Se traerá a la reunión de diciembre el informe de auditoría 2022/23 para su aprobación.

### PRESUPUESTO CURSO 2023-2024

Laurane Zubiak, administradora general, ha presentado los presupuestos para el curso 2023/24. Se ha explicado el presupuesto de pérdidas y ganancias y las previsiones de inversiones extraordinarias y de resultado. La cantidad asignada a los gunes está pendiente de consignar en las partidas correspondientes. Tras el reparto, a la reunión de noviembre se traerá el presupuesto definitivo.

### REFLEXIÓN SOBRE LA OFERTA DE ERDU

El director de ERDU de Arrasate, Jon Otxandategi, y la directora de Iruten, Nagore Iraola, han presentado el informe del proceso de reflexión. El descargo del estudio realizado desde el ámbito pedagógico ha corrido a cargo de la vocal Amaia Arrieta. Continuaremos con la elaboración y se traerán propuestas al Consejo Rector para que si se proponen cambios en la oferta de cara al próximo curso se aprueben en noviembre o diciembre.

### DEFINICIÓN DE TEMAS PARA LA ASAMBLEA PREPARATORIA Y EL ÓRGANO DE PARTICIPACIÓN SOCIAL

Se pide a los participantes que propongan temas que puedan ser relevantes para tratar en las reuniones del Órgano de Participación Social y en la Asamblea Preparatoria. En la próxima reunión traerán los temas si así se valora.

### CONSTITUCIÓN DE LA SOCIEDAD. PASOS.

Se acuerda por unanimidad la creación de una Sociedad de Formación Profesional y la promoción de la Ikastola.

Se seguirán dando pasos para la articulación, incluyendo la creación del documento de funcionamiento y la firma del convenio.

## BESTERIK

### - Kontseilu Soziala.

Kontseilu Sozialeko kide berriak izendatu zirela azaldu du lehenadakari ordeak. Azaroak 30ko Mugimendu Feministak deitutako grebarako prozesua martxan jarri dela ere azaldu da.

### - MONDRAGON.

Mondragonetik 25-28 Politika Sozioenpresarialaren kontrasterako zirriborroaren inguruko azalpena eman du Leire Arana lehendakari ordeak eta Ezagutza Dibisioko kideek proposamenak jasotzeko prozedura azaldu du. Gure kasuan Zuzendaritza Orokorreko eta Kontseilu Errektoreko kideen kontrastea jasoko da.

### - Ikastolen Elkarteak.

Kilometroak 2024 urteko jaiak Azpeitian izango dela azaldu du EHIko Artezkaritza Kontseiluko kide Alaitz Perez de Arenazak. Honez gain, Hezkuntza Legearen ibilbidearen inguruan Gasteizko Parlamentuaren alderdi politikoen zuzenketen inguruan EHIk egindako irakurketa partekatu da.

### - Lan-sariak

Ikastolen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak azaroan %0,5 igoko dituela eta, proposatu du lan sariak portzentai horretan igotzea. Finantziazioa bermatuta egonda, aldeko erabakia hartu da aho batez.

## OTROS

### - Consejo Social.

La Vicelehendakari ha expuesto los temas tratados en la última reunión del Consejo Social. También se ha explicado que se ha puesto en marcha el proceso para la huelga convocada por el Movimiento Feminista para el 30 de noviembre.

### - MONDRAGON.

La vicelehendakari Leire Arana, ha explicado el procedimiento para que los miembros de la División de Conocimiento reciban las propuestas del borrador de la Política Socioempresarial 25-28. En nuestro caso se incluirá el contraste de los miembros de la Dirección General y del Consejo Rector.

### - Ikastolen Elkarteak.

Alaitz Pérez de Arenaza, miembro del Consejo Rector de EHI, ha explicado que la fiesta del Kilometroak 2024 tendrá lugar en Azpeitia. Además, en torno al recorrido de la Ley de Educación se ha compartido la lectura realizada por EHI sobre las enmiendas de los partidos políticos en el Parlamento de Vitoria-Gasteiz.

### - Retribuciones

Ikastolen Elkarteak ha propuesto que las subvenciones del Gobierno Vasco suban un 0,5% en noviembre. Con la financiación garantizada, se adopta una decisión favorable por unanimidad.

| A  | A  | A  | O  | O  | L  | I  |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    | 1  | 2  | 3  | 4  | 5  |
| 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 |    |    |    |

## AZAROA: data nagusiak

2023/11/15 Kontseilu Soziala  
2023/11/23 Kontseilu Errektorea